


ARTEA-ARGAZKIGINTZA-MODA

William Selden

| *Tailerrean sortutako lanen aukeraketa*



MID_E Studio 011 programaren barne

MID_E Studio 011

IX. MID_E Nazioarteko Erakustaldia

Babeslea



Antolaketa



Renata Laszczak



Leónidas Spinelli Capel




Idoia Unzurrunzaga



Tamanaco



Valentina Torres Zorrilla



Patrik Grijalvo Millois



Nagore Eceiza



Naroa Zalakain



Gisli Ari Hafsteinsson



Luis Arellano



Marga Gómez Villate



ARTEA-ARGAZKIGINTZA-MODA.

William Selden

Kontzeptu eta antolaketa **Colectivo YOX** www.colectivoyox.com

Tutor de la edición **William Selden**

Diseinugile gonbidatua **Esther Lebrato**

Babeslea **Arteleku-Tabakalera**

Tailerra, MID_E Studio 011 -www.mid-e.com- programaren barne,
Donostiako Artelekun -www.arteleku.net- egin zen 2011ko Martxoak 28-31 bitarte.

Adierazpen artistikoa eta modaren publizitatea elkar uztartuz argazkigintzan sakontzeko tailerren bigarren edizioa. William Selden britainiar argazkilariaren laguntzarekin, parte-hartzaile hautatuak proiektu pertsonalak landu zituzten, tailerrean emandako esperientziaz koordinatutako kontuan hartuta: Esther Lebrato diseinatzaile gonbidatuaren estilismoak; modeloak; lekua; denbora; argazki saioa... Proiektu hoberenek William Seldenek aukeraketa osatu zuten, Artelekun, apirilaren 1ean, MID E Studio 011 programaren barruan erakutsi zirenak eta dossier honetan ikus daitezkeenak.

ARTEA-ARGAZKIGINTZA-MODA tailer-seriearen oinarritzko kontzeptua

Serie honek adierazpen artistikoa eta moda-publizitatea elkarrekin jartzen dituzten argazkigintzako praktikan sakontzen du. Argazkigintzak eta modak, azken hamarkadetakoa ikusizko irudikapenaren ardatz nagusietako bik, gaur egungo gizartearen pertzepzio esperientzian gero eta handiagoa den espazioa hartzen dute. Bakoitzak banaka, eta batez ere biak batera, egunerokotasuna bereganatzen dute norbanakoaren eta munduaren arteko harreman eremu bat eratuz, gehienetan oso baldintzatua egoten dena. Bitarteko grafiko, elektronikoa eta digitalen gorakadak erreferentzia eremu hori zabaldu eta aditzera ematen du.

Argazkigintzaren izaera dualak, bitarteko artistikoa eta erregistratutako eta erreproduktibitate mekanismo gisa, hainbat jardunbide ahalbidetu ditu, helburu artistikotik merkataritza hutsekora doazenak. Elkargune horretan kokatutako argazkilariak artearen, modaren eta argazkigintzaren arteko joan-etorriko zirkuitu hori arakatu dute, batzutan arteak abiatuta, besteetan publizitateak, eta askotan tarteko posizio batetik. Zirkuitu horrek eragin nabaria du gaur egungo modaren, publizitatearen eta artearen alorrean, eta agerian gelditzen da hedabide grafikoetan argitaratutako lanen kalitate artistikoa ukaezinean, edo museoetan eta galerietan gero eta gehiago ikus daitezkeen moda-argazkigintzan. Era berean, agerian gelditzen da argazkilarien, ikusizko artisten eta artista plastikoen lanean, horiek argazkigintzak duen ahalmena baliatzen baitute kategorizazio estetikoak diluitzen dituzten eta argazkigintzan eta argazkigintzatik zentzua ematea eta irudikatzea zalantzan jartzen duten diskurtsoak elkarrekin jartzeko.

EDIZIOAREN TUTOREA

William Selden. Hertfordshire (Erresuma Batua). Argazkilaria. Bere ibilbide profesionalean modelo lanetan ibili eta publizitatearen industriaren aritu ondoren, arte ederretako ikasketak egin zituen Middlesex-eko Unibertsitatean (Erresuma Batua). Orduz geroztik argazkiak egin ditu Dazed and Confused, ID, Self Service, Pop, Vogue Hommes Japan, Another Man, Another, V Magazine, Interview, Numéro eta New York Times argitalpenentzat, esate baterako. Baita publizitate argazkiak ere Uniqlo, Puma, Prada eta Ray Ban markentzat, ahaztu gabe zinemako eta musikako ospetsuei egin dizkien erretratuak. Ospetsu horietako batzuk dira Pulp, Franz Ferdinand, Jude Law, Daniel Craig eta Rihanna.

Bi sari garrantzitsu irabazi ditu Erresuma Batuko arte diseinu eta zuzendaritzako D&AD lehiaketa ospetsuan. Lehena 2004an, Spiritualized musika taldearen "Amazing Grace" albumari egin zion portadarengatik, eta bigarrena 2006an, 'Golden Skins: Ginger Boy' publizitate kartelarengatik. www.williamselden.com

MODA DISEINUGILE GONBIDATUA

Esther Lebrato. Oviedo, 1980. Madrilen bizi da. Arte Ederretako lizentziatua da (Pontevedrako Arte Ederretako Fakultatea) eta Ehungintza diseinua eta Modan graduatua (Galiziako Ehungintza diseinua eta Modako Goi Mailako Ikasketak, ESDEMGA). Bere lanak, Noovo Festival for Fashion and Photography jaialdian (Santiago de Compostela), South 36. 32 N pasarelan (Cádiz) eta Madrileko Madrid Fashion Weekeko El Ego de Cibelesen ("doggiegirlfriend" bilduma) aurkeztu izan ditu. www.estherlebrato.com

ARGAZKILARIAK ARTEA-ARGAZKIGINTZA-MODA. William Selden tailerreko partaideak

Luis Arellano. Iruña, 1969. Iruñean bizi da. Argazki eta ikus-entzunezko baliabideetan egile eta irakaslea da. Argazkilari gisa, bidaietako argazkiak eta publizitateko argazkiak egin izan ditu batez ere, ikuskizunei eta performanceen inguruan batez ere. Ikus-entzunezko errealdetarako gisa, dokumentalen generoan lan aipagarria egin du. www.fotoscopia.es/tl

Nagore Eceiza. Donostia, 1976. Donostian bizi da. Publizitatean lizentziatua da, eta argazkigintzan prestakuntza du. Hainbat urteko eskarmentua du diseinatzaile grafiko gisa. Bere argazki-kamerarekin Indian zehar urte batez bidaiatu ondoren dokumental sozial eta antropologikoaren munduan murgildu zen. Gaur egun, lan horrekin batera, kamera-operadore eta errealdetarako lanetan ere badabil telebistaren eta publizitatearen esparruan. Gainera, Espainiako ordezkaria da FESTIVALISSIMO, Montrealeko Ibero Amerikar Zinema Jaialdian, filmografia aukeratzeko.

Marga Gómez Villate. Donostia, 1978. Bilbon bizi da. Diseinu, moda-estilismo eta patroigintza-ikasketak ditu. Modaren esparruan patroigile gisa egiten du lan. Halaber, product-managerra eta erretratu zein modan espezializatutako freelance argazkilaria ere bada. picbook.es/photoblog/

Patrik Grijalvo Millois. Bilbo, 1984. Bilbon bizi da. Euskal Herriko Unibertsitatean, Arte Ederretan lizentziaduna da, eta ikasketak horiek Athens School of fine Arts akademian amaitu zituen. Atenaseko egonaldiaren ondoren, Bilbao Arten, Kunsthaus Bregenz museoan eta Rotterdamen bekaduna izan zen. Argazkigintza artistikoan espezializatuta dago, elementu arkitektonikoen erretratuak egiten ditu batez ere, baina abstrakzio plastikoa eta garapen formalak ere jorratzen ditu. Bere proiektuek ikuslearekin hartu-emanak sortzea dute helburu, fotografiatutakoaren aurrean, ulertzeko ahalmena egin behar baitute. patrikgrijalvo.carbonmade.com

Gisli Ari Hafsteinsson. Keflavik (Islandia), 1967. Donostian bizi da. Argazkilari, ile-apaintzaile eta makilatzaile gisa egiten du lan, Llongeras, Tony and Guy, House of Orange eta Ivasfoten prestakuntza jaso duelarik. Argazkigintza-proiektuak erakusketetan ikusgai jarri izan ditu, batez ere Islandian, eta bere argazkiak nazioarteko hainbat komunikabideetan argitaratu dira, Photo (Frantzia), Quatro (Herbehereak), Monitor (Islandia), Absolut Marbella (Espainia), eta Picnicen (Mexiko), besteak beste. www.gisliari.com

Renata Laszczak. Bielsko-Biala (Polonia), 1978. Donostian bizi da. Poloniako Slaski Unibertsitatean egin zituen Arte Ederretako ikasketak, argazkigintza espezialitatean. Aurrerago, Euskal Argazkilaritza-Erakundearen argazkigintza profesionalaren moduluko ikasketak egin zituen, eta Artelekun zein Krea Expresión Contemporánea (Gasteiz) erakundeetan, argazkigintzari buruzko hainbat lanegi eta mintegitan parte hartu du. Freelance argazkilari gisa egiten du lan, moda, erreportaje sozial, eta musika-ekoizpenetan, besteak beste. www.flickr.com/photos/33063127@N05/

Leónidas Spinelli Capel. Buenos Aires, Argentina. 1977. Bilbon bizi da. Argentinako Argazkilaritza Eskolan argazkilaritza-ikasketak egin eta herrialde horretan freelance gisa lan egin ondoren, Alacantera joan zen, eta bertan Arte Ederretan lizentziatu zen. Banakako eta taldeko hainbat erakusketak egiteaz gain, hainbat arte eta argazkigintza-lehiaketetan saritua izan da. Gaur egun, etorkinen kolektibo eta estetika artistikoei buruzko dokumental eta argazkigintza-proiektu batean ari da lanean BilbaoArte fundazioan. Halaber, bere doktoretza-tesia ere egiten ari da "El objetivo furioso: La marginalidad, como opción ideológica, estética y creativa en la fotografía contemporánea." (Objektibo haserrekorra: marjinaltasuna, ideologia, estetika eta sormen-aukera gisa argazkigintza garaikidean). Kosme de Barañano Letamendia da tesi horren zuzendaria.

Tamanaco. Santander, 1982. Lloreda de Cayonen (Kantabria) bizi da. Argazkilari autodidakta da, eta argazkigintzan duen inplikazioa oso artistikoa da. Ondorioz, lantzen dituen beste formatuetan, ikus-entzunezkoetan besteak beste, nabaria da argazkigintzaren eragina. Bere lanak Espainiako galeria eta erakusketetan egon dira ikusgai, baita Frantzia (Pariseko Nazioarteko Arte Aretoa, 2008), Kuba edo Japonian ere (erakusketak kolektiboak, Japan International Artists Society erakundeko presidentea izan zen haren komisariora). Gaur egun, freelance argazkilari gisa egiten du lan, Antikrytheria sortzaile-kolektiboaren sortzailea da, eta L'agencia argazkilaritza-agentziaren kide sortzailea da. www.laagenciaphoto.com

Valentina Torres Zorrilla. Txileko Santiago, 1974. Bilbon bizi da. Txilen Arte Plastikoen Irakaskuntza eta Pedagogian lizentziatu zen. Ikerketa eta sormen-metodologiei buruz ikerketa aurreratuak egiten jarraitu du, eta Euskal Herriko Unibertsitatean doktoretza egiten ari da. Lan artistikoa batez ere bi esparrutan garatzen du: alde batetik, Huelgaenelmatadero arte-kolektiboko kide da, eta bestetik, bere lan-ildo pertsonala gorputzari eta haren mugimenduei buruzkoa da batez ere. Sormen-estrategiak ikertzen ditu, besteak beste, irudiak moztu, itxuraldatu edo trokatu egiten ditu, era horretan, arte-ekintzak, argazki-performancea eta grabatu-instalazioak eginez. Azken proiektuak argazkigintza eta marrazketaren inguruan kokatu dira. Txile, Peru, Argentina, Brasil, Italia, Portugal eta Espainian erakusketak eta arte-ekintzak egin ditu.

Idoia Unzurrunzaga. Donostia, 1968. Donostian bizi da. Arte Ederretan Lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik, eta argazkigintza-ikasketak egiten jarraitu du Bartzelonako hainbat zentrotan, besteak beste Institut d'estudis fotogràfics de Catalunya. Profesionalki, arkitektura eta barnealdeetako argazkigintzan espezializatuta dago. Enpresa pribatu eta erakunde publikoentzako egiten du lan, Euskadi mailan batez ere, eta besteak beste, honako lanetan argitaratu dira: argitalpen espezializatuetan, aldizkarietan, sustapen-katalogoetan, hiriak sustatzeko liburuetan, egileei buruzko liburu monografikoetan, webguneetan eta abar. Horien artean, aipagarriak dira: "Guía de arquitectura de Donostia-San Sebastián" (Donostiako arkitektura-gida) COAVN-Euskal Herriko Arkitekto Elkargo ofizialak argitaratutakoa, edo "The explosion of the city" (Hiriaren eztanda) COAC-Col.legi Herriko Arkitekto Elkargo ofizialak argitaratutakoa, edo "The explosion of the city" (Hiriaren eztanda) COAC-Col.legi d'Arquitectes de Catalunya argitaratutakoa. Bartzelonako UAB-Universitat Autònoma de Barcelona unibertsitatearen argazkigintza zientifikoko nazioarteko lehiaketan lehen saria irabazi zuen. Euskadi-mailan banakako erakusketak egin ditu eta erakusketak kolektiboetan parte hartu du. Bere obra Photomuseum, argazki & zinema museoko bildumaren barne dago. Zarautz, Gipuzkoa. www.unzurrunzaga.es

Naroa Zalakain. Donostia, 1986. Tolosan bizi da (Gipuzkoa). Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziaduna da, eta moda argazkigintzan Unibertsitate Aduaren ikasketak egin ditu Madrilan. Snoot argazkilaritza-kolektiboarekin lan egiten du, eta freelance gisa argazkigintza-lanak ere egiten ditu. Modaren esparruan, film labur eta bideoklipetan jantzien arduradun gisa ere egin du lan.